# baikara

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Donostia · Gipuzkoa

Enero 2020ko Urtarrila



## DBHko ikasleek Donostiako oroimen historikoa ezagutuko dute bisita gidatuen bitartez



### BEASAIN

Murumendi ikastetxeak “kudeaketa aurreratuari diploma” jaso du



### ACTUALIDAD

Presentada la temporada 2019/2020 del ciclo Aula de Música


KIPUTZ
AMILDEGIA
HISTORIAURREAN
UN ABISMO
EN LA PREHISTORIA
2019/11/16
2020/02/09
Antolatzaileak / Organizan:
STM
San Telmo Museoa
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
donostia
kultura
GORDAILUA
Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa
MUSEO DE ALTAMIRA
aranzadi
zientzia elkartea
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Museoaren patrono pribatuak / Patronos privados del museo:
eitb
kutxa
FUNDAZIOA
EL DIARIO VASCO

# aurkibidea índice



## donostia

04-08





P. 4-5 **Presentada la temporada 2019/2020 del ciclo Aula de Música**

p.6 DBHko ikasleek Donostiako oroimen historikoa ezagutuko dute bisita gidatuen bitartez

p.7 INSPIRA STEAM 2019 ikastetxeen bila dabil!

p.8 Breves-Laburrak


## gipuzkoa

09-14




p. 9 **Goieskolako Jardunaldi Pedagogikoak**

p.10 Urdanetako ikasleek badute zer esana

p.11 'Sormen geLab', una innovadora aula puesta en marcha en Orokieta herri eskola

p.12 Fleming Herri eskola cumple 50 años

p.13 Murumendi ikastetxeak "kudeaketa aurreratuari diploma" jaso du


DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza
Educación

## BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello BAIKARA es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkarteen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, BAIKARA da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

**www.baikara.org** **Baikaragurasoak** **@BaikaraF**

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa


**ARGITARATZAILEA:** BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.eus / rosa@baikara.eus

**Koordinatzailea:** Rosa Izquierdo. **Erredakzioa eta argazkiak:** Orokieta herri eskola (Zarautz), Murumendi eskola (Beasain), Urdaneta herri eskola (Ordizia), Fleming herri eskola (Villabona). **Diseinua:** Ane Galdos. **Inprimatzailea:** SVP. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109.



# PRESENTADA LA TEMPORADA 2019/2020 DEL CICLO AULA DE MÚSICA

## En la presente edición más de 9.000 estudiantes de educación infantil, primaria y secundaria han acudido a los Conciertos para Escolares





Un total de 50 actividades han compuesto una rica y variada programación en la nueva Temporada del Aula de Música de la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Este ciclo de carácter educativo, que cuenta ya con una tradición arraigada en la programación de la Orquesta, surgió con el objetivo de acercar la música a la ciudadanía en general, y al sector más joven de la sociedad en particular. Los conciertos que se ofrecen en su seno tienen un carácter didáctico, pedagógico y cercano, y se dirigen a diferentes grupos de edad, hasta alcanzar un amplio espectro que va desde los 2 hasta los 16 años. Ya cuentan con un recorrido de más de diez años los Conciertos para Escolares, que se han consolidado como una de las líneas principales de Aula de Música. En total, en las diez ediciones previas, más de 44.000 alumnas/os han podido disfrutar de estos conciertos, en una cifra que ha ido aumentando progresivamente año a año.

En la presente edición más de 9.000 estudiantes de educación infantil, primaria y secundaria han acudido a los Conciertos para Escolares. Se trata de alumnas y alumnos de cerca de 100 centros de enseñanza de localidades







como Aduna, Aizarnazabal, Alkiza, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Berrobi, Deba, Elgoibar, Errenteria, Gabiria, Itsasondo, Lasarte, Lizartza, Oiartzun, Ordizia, Orio, San Sebastián, Urnieta, Urretxu, Zarautz y Zestoa, entre otras.

Todos los programas diseñados este año para el ciclo Aula de Música contarán con Conciertos para Escolares, y tendrán lugar en Miramon y Kursaal, en San Sebastián. El primero de ellos, Mozart, Nannerl eta lagunak, reunió del 16 al 24 de octubre en la sede de la Orquesta a 2.300 niñas y niños de entre 2 y 5 años. Ekomusik, también dirigido a jóvenes de entre 6 y 10 años, estará del 13 al 18 de febrero en la sede de la Orquesta; y Maitasun epikoak, que se ha programado en el Auditorio Kursaal para jóvenes de entre 10 y 16 años, los días 26 y 27 de febrero.

De entre las actividades que la Orquesta Sinfónica de Euskadi destina al público infantil y juvenil, la sección que cuenta con la trayectoria más larga y asentada es la de los Conciertos en Familia. Esta alternativa de ocio cultural para disfrutar en familia con los más pequeños lleva más de 20 años sin faltar en la programación de la Orquesta.








# DBHKO IKASLEEK DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOA EZAGUTUKO DUTE BISITA GIDATUEN BITARTEZ

## Martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez

Donostiako Udalak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat “Donostiako oroimen historikoaren ibilbidea” bisita gidatuak antolatu ditu, martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hauetan Gerra Zibilean, 1936ko Estatu kolpea eta diktadura frankistaren ondoren, gertatutakoa ezagutzera emango da.

Donostiako ikasleek aukera izango dute hiriko historia, oroimen historikoa eta giza eskubideen urraketen gaira hurbiltzeko, ikastetxetik kanpo historia modu interaktiboan lantzeko eta haiengan jarrera kritikoa sustatzeko. Ekimen honi esker, ikastetxean ikasturtean zehar landuko den gaia osatzea lortuko dute, eta, horretarako, ikasgelan lantzeko prestatu den material didaktikoaren laguntza izango dute.

Hauek dira ibilaldian zehar bisitatuko diren 1936ko estatu kolpeko eta frankismoaren garaiko Donostiako gertaera nagusien guneak: Easo plazako kioskoa (abiatzea); Garai bateko suhiltzaileen eraikina (babeslekua); San Jose ikastetxea (atxikitze lekua); San Martzial kalea 48-50 (bonbardaketa lekua); Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea (komunikabideak eta zentsura); Maria Cristina hotela (borroka lekua); Nautikoaren pasabidea (fusilamendu lekua) eta Omenezko eskultura ibilbideak ordu eta erdiko iraupena izango du eta martxoaren 1etik maiatzaren 31era bitartean, astelehenetik ostiralera izango dira, 9:00etatik 17:00etara, aukeratzen den ordutegian. Izen ematea, 2020ko otsailaren 28 arte egin daiteke, info@komazk.com helbide elektronikoan edo 943 456000 telefonora deituz.










# “INSPIRA STEAM” 2019 IKASTETXEEN BILA DABIL!

## Euskadin ez ezik, Madrilen, Katalunian, Andaluzian eta Galizian ere abian dago proiektua

Inspira STEAM proiektu aitzindaria da Euskadin, neskengan bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatu nahi dituena. Horretarako sentsibilizazioko eta orientazioko ekintzak egiten ditu, ikerketa, zientzia eta teknologia arloetako emakume profesionalen eskutik. Lehenengoz erabili da taldeko aholkularitza teknika, STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematikak, ingelesezko sigletan) irakasgaiak sustatzeko proiektu batean eta lehen hezkuntzako ikasleen artean.

Euskal ikasleen artean bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzeko beharretik eta horien artean neskak egoteko premiatik sortu da Inspira STEAM. Prestakuntza teknologikoaren aldeko apustua egiten duten ikasleen kopurua beherantz doa urtean-urtean. Eta emakumeen taldeari dagozkio, datuak are eta nabarmenagoak dira. Espainiako unibertsitate sistemako ikasle guztien %54,3 emakumeak badira ere, titulazio teknikoetan, Ingeniaritzan eta Arkitekturan duten presentzia, esaterako, %26,4ra jaisten da.

Proiektuaren gakoak hauek dira:

1.Hurbileko emakume teknologoen erreferente berriak eman nahi ditugu.
2.Neskei eta mutilei STEAM arloko lanbideak ezagutarazi nahi zaizkie.
3.Herrialde baten garapena gizonek eta emakumeek batera lortu beharraren kontzientzia sortu nahi da.
4.Teknologiako karreren inguruko sentsibilizazioa eta orientazioa eman nahi da.
5.Emakume teknologoen balioa denen aurrean erakutsi nahi da.
6.Gizartean ditugun estereotipoak ezagutarazi nahi dira, ikasketak aukeratu behar direnean mugarik sortu ez dezaten.

Ikasleekin INSPIRA STEAM 2019an parte hartu nahi duten ikastetxeen bila gabiltza!

Argibide gehiago hemen: **http://inspirasteam.net/**



# BREVES / LABURRAK

## EUSKARAGIDA.EUS WEBGUNEAK EUSKARAZKO KULTUR ETA AISIALDIKO PRODUKTUAK JASOTZEN DITU

Urtero bezala, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak euskaragida.eus izeneko euskarazko kultur eta aisialdiko produktuen gida argitaratu du. Bakarka, lagun artean nahiz familian aisialdia euskaraz gozatzeko era guztietako eta adin guztiei zuzendutako produktuak jasotzen dira bertan: aldizkariak, komikiak, DVDak, joko eta jolasak, musika, liburuak, hiztegiak, gurasoentzako nahiz euskara ikasteko material berezitua, web orri interesgarriak eta abar.




Produktuak jasotzaileen adinaren arabera datoz sailkatuta eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak zehazten dira (izena, egilea, argitaletxea eta gutxi gorabeherako prezioa). Guztira 10.000 ale banatuko dituzte 10 urtetik beherako haurren artean. Dena den, adin guztiei zuzendutako produktuen informazio guztia www.euskaragida.eus webean eskuragarri dago. Euskaragida.eus atariak, bere aldetik, paperezko edizioan iragarritako produktu guztiez gain, produktu gehiago eta egunez egun argitaratzen doazenen gaineko informazioa jasotzen du, produktu motaren eta adinaren arabera sailkatuta. Aurreko urteetako produktu batzuk ere jasotzen dira. Liburuen atalean egileen araberako bilaketa egiteko aukera ematen du. Era berean, erabiltzaileari gustukoen duen produktua eskuratzea erraztearren, gehientsuenek on-line erosteko loturak erantsita dituzte.

## KIPUTZ ANIMALIA TRANPA, FAMILIENTZAKO ARTISTA TAILERRA

Historiaurreko animaliei buruzko artista tailerra. Kiputz historiaurreko amildegia izan zen, animalia askoren tranpa. Bertan aurkitutako animalien garezurra berregingo dugu Cova Orgaz eskultorearen laguntzaz. Adina: 6-12 urte, ele bitan. Kiputz Amildegia Historiaurrean erakusketarekin lotutako jarduera. Sarrerak salgai urtarrilaren lehen egunetik aurrera. Aurten, estreinakoz, museoko bazkideek hasieratik izango dute aukera programazio osoko sarrerak erosteko, eta %10eko deskontua izango dute.






"ESCUCHAR LA CIUDAD PARA TRANSFORMARLA"

Es el lema propuesto para las CIUDADES EDUCADORAS 2019 y queremos invitaros a que toméis parte de ella con vuestro alumnado.

¿CÓMO?

DESCARGAR esta POSTAL, ESCRIBIR, DIBUJAR y LLENARLA DE COLOR, con todas esas cosas que más os gustan de la ciudad.

Además, podéis COMPARTIR vuestras postales con nosotros, enviándonos a nuestra DIRECCIÓN hezkuntza@donostia.eus algunas imágenes y/o videos para celebrar el día Internacional de las Ciudades Educadoras.

PUBLICAR vuestra experiencia en REDES SOCIALES como Twitter o Instagram etiquetando la cuenta @EducatingCities con los Hastag #educatingcityday #donostiahezitzailea

Más información sobre la Asociación de Ciudades Educadoras http://edcities.org

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Hezkuntza Educación




# GOIESKOLAKO JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK



## 2020ko Urtarrilaren 15etik 23ra burutuko dira

Goieskolak, Debagoienako ikastetxe publiko guztiak biltzen dituen erakundeak, Jardunaldi Pedagogiko batzuk antolatu ditu, hauen sarrera abenduak 11n César Bona irakaslearen "Escuchar para educar" hitzaldia izanik.

Urtarrilean Jardunaldi gehienak gauzatu ziren eta gai ezberdinen inguruan aritu ziren; hala nola, eskolaz kanpoko gunea, dolua, euskara, artea, etxerako lanak, bideojokoak, limiteak, gatazken ebazpena, Nafarroa euskal estatua, ipuinak, etab.

Urtarrilak 15ean, Aretxabaletako Kurtzebarri BHIn, gaia "Berdinen arteko gatazken kudeaketa" izan zen eta egun horretan bertan, Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolan "Zeure barneko sorgin-ipuina piztu nahi" deritzonarekin Fernando Murillo izan zen protagonista. 16an, Arrasate Herri Eskolan, "Dolua". 20an, Antzuola Herri Eskolan "Hezkuntza berrikuntza: Antzuola Herri Eskolako bilakaera berrikuntza pedagogikoaren bidean" Andoni Argiñanoren eskutik. 21ean, zentru ezberdinetan izan ziren jardunaldiak: Kurtzebarri Herri Eskolan "Nafarroa, euskal estatua"; Luis Ezeizan "La importancia de los límites en la familia" Andoni Colás-ekin; San Martin Agirre eskolan "Eskolako kanpo espazioa haurren garapenerako eta ikaskuntzarako baliabidea" Iñaki Larrearekin eta Bergarako Ipintza BHIn "Bideojokoak". Azkenik, urtarrilaren 22an: Aramaixoko San Martin eskolan "Aramaixo arnasa gara! Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan"; Elgetako Herri Eskolan "Irakasle al naiz nire etxean? Laguntza motak etxerako lanetan" Joxe Amiamarekin eta Oñatiko Urgain eskolan, "Tira egin euskeriari!!!!" mahai-ingurua.

Arrasate Institutuan, urtarrileko 20tik 23ra "Aniztasunetik sortuz" arte erakusketa egon zen.

# URDANETAKO IKASLEEK BADUTE ZER ESANA



## Ordiziako Udalak Urdanetako ikasleen laguntza eskatzen du Bustutza auzoaren eraberritzerako

Ordiziako udalaren eskutik, duela hilabete batzuk, Bustutza auzoaren eraberritze prozesuari hasiera eman zitzaion auzotarren parte hartzearekin. Urdaneta ikastetxea auzoan kokatuta egonik, Ordiziako alkateak, bertako ikasleei auzoan zein gauza hobetu beharko liratekeen galdetzeko konpromisoa hartu zuen eta horretarako beraien neurrira eginiko parte hartze prozesua jarri zuten martxan urrian.

Prozesu horretarako, ikastetxean duten ikasleen antolamenduaren egituraz baliatu ziren eta gelako ordezkariei proiektuaren helburuak eta lan markoaren nondik norakoak azaldu dizkiete eta eskola inguruko espazio publikoak behatzen trebatu dituzte. Ondoren, ordezkari bakoitzak bere gelan egindakoa azaldu eta markatutako ibilbidea irakasleekin aztertu dute denen artean. Talde guztietan ateratako emaitzak partekatu eta diagnosi bat osatu dute ordezkari eta proiektuaren arduradunekin batera. Diagnosi hori ordezkariek berriro geletan azaldu eta gero, hobekuntzarako proposamenak jaso eta alkatearekin konpartitu dituzte auzoaren eraberritze proiektuan txertatzeko. Honen guztiaren helburu, haurrek herriarekiko duten ikuspegia balioan jartzeaz gain, lan kooperatiboaren eta parte hartzearen inguruko esperientzia positiboa izatea da.





# 'SORMEN GELAB', UNA INNOVADORA AULA PUESTA EN MARCHA EN OROKIETA HERRI ESKOLA DE ZARAUTZ

## Facilita que el alumnado promueva su creatividad con distintos talleres

En base a proyectos transversales en 'Sormen geLab' el profesorado toma parte para que los grupos trabajen distintas capacidades al unísono, pero cada uno a su ritmo.

Esta aula ha sido diseñada con el fin de transformar el modo de enseñar y aprender, con el alumnado como protagonista, basándose en la innovación en la enseñanza y el acceso a soluciones tecnológicas creadas específicamente para la educación.

Orokieta eskola es uno de los más de cien lugares de todo el mundo seleccionados dentro del programa "Reinvent the Classroom" en base a su compromiso con la excelencia en la enseñanza y la innovación educativa. El aula Sormen geLab se suma así a más de 100 centros educativos que investigan nuevas técnicas de aprendizaje a través de la tecnología, volviendo a poner al alumnado en el centro, con metodologías innovadoras que le formarán para ser ciudadanos y ciudadanas de un mundo en constante evolución.

El proyecto Reinvent The Classroom (RTC) implantado en Orokieta ayudará en la transformación pedagógica y tecnológica. El objetivo del mismo es desarrollar en los alumnos-as las habilidades y competencias del siglo XXI, otorgando a Orokieta, a su alumnado y profesorado el pleno acceso a la tecnología y, con ello, al conocimiento global. A nivel nacional es el segundo centro con esta tecnología, tras otro colegio de la localidad madrileña de Rivas-Vaciamadrid.










# FLEMING HERRI ESKOLA CUMPLE 50 AÑOS

## Las celebraciones se están llevando a cabo a lo largo de todo el curso escolar




En este curso tienen mucho que celebrar en Fleming Herri Eskola ya que cumplen sus bodas de oro. Son ya 50 años desde que la escuela tomara este nombre y la verdad es que el motivo no deja de ser curioso. En aquella época, un profesor que estuvo en la Guerra Civil fue a dar clases al centro y parece ser que estuvo a punto de perder una pierna debido a una herida en el campo de batalla. ¿Sabes cómo terminó esta historia? Gracias a la penicilina encontrada por el prestigioso científico Alexander Fleming consiguió mantener la pierna y, cuando fue a trabajar a Amasa-Villabona, propuso poner el nombre del científico al colegio. Como veis, la propuesta fue aceptada.

Como ya hemos mencionado, han pasado 50 años desde entonces y no han sido pocos los cambios que ha experimentado la escuela durante este tiempo. De ser una escuela de modelo A que juntó a alumnado de diferentes sexos, a convertirse en una escuela pública e inclusiva que está euskaldunizando a numerosa población en la actualidad. ¿Y dónde está la clave? Adaptarse en todo momento a las necesidades del pueblo, haciendo una oferta educativa de todos/as y para todos/as.

**Urriak 10:**
50 urte hauetako eskola komunitateko kideekin argazkia
**Urriak 25:**
50.urteurreneko logoaren aurkezpena eta Aniztasunaren Festa
**Abenduak 3:**
Euskararen eguna dela eta, 50 urte hauetan Fleming-go kide izan direnekin euskararen bilakaera adierazten duten bideo motzak grabatu zituzten sare sozialetan zabaltzeko.
**Urtarrilak 18:**
Azoka Pedagogikoa eskolan duten proiektu eta lanketa desberdinak herrian azaltzeko.
**Ekainak 12-13:**
Ikasturte amaierako festa 50 urte hauetako eskola komunitateko kideekin.

# MURUMENDI IKASTETXEAK “KUDEAKETA AURRERATUARI DIPLOMA” JASO DU

## 2019-2020 ikasturte hasieran, Euskaliten eskutik Kudeaketa hausnarketa egiteko Dokumentua jorratu dute



Diploma hau Murumendi Ikastetxeak abenduaren 18an Gazteizko Europa Jauregian, Lehendakariak eta Hezkuntza Sailburuak buru izandako galan jaso zuen, Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bakarra izanik.

Beasaingo Murumendi Ikastetxea 2007ko irailetik “Kalitatea Hezkuntzan” sareko partaidea da. Gaur arteko bide honetan, Kalitate Sistemak bere lanaren ebaluazio kualitatiboaz gain, ebaluazio kuantitatiboa ere ahalbideratu du, hobekuntza bideak erraztuz. Egitasmo honen ardatza horixe da hain zuzen, HOBEKUNTZA. Kalitatea Hezkuntza Sareak Euskalit erakundearekin batera, 2018ko otsailean AURRERAKA egitasmoan ikastetxe pilotu gisa parte hartzeko eskainitako erronkari aurre egitea erabaki zuten.

Edozein hobekuntza planen ezinbesteko aurrekaria diagnostiko zehatza izan ohi da. Gauzak horrela, otsailetik maiatza bitartean autodiagnostikoa egiteari ekin zioten.

Hurrengo ikasturtean, 2018-2019 hain zuzen, autodiagnostikoa Kalitatea Hezkuntzan Sareko gainontzeko Ikastetxeetara orokortu zen.

2019-2020 ikasturte hasieran, Euskaliten eskutik Kudeaketa hausnarketa egiteko Dokumentua jorratu dute. Kudeaketa aurreratuaren sei eremuak aztertuz Ikastetxearen kudeaketa hobetzen lagundu eta beren indarguneak zein zer hobetuak identifikatzea izan du helburu idazki honek.

Azaroaren 28an kontraste saioa burutu zen. Bertan kanpo-ebaluatzaile taldeak (Ikuskaritza, Berritzegune nagusia eta erreferentzizkoa, Euskaliteko aztertzaile burua, beste ikastetxe bateko zuzendaria) esparru ezberdinetako kudeaketan egindako ibilbidea aintzat hartuta, Murumendi ikastetxeari “Kudeaketa Aurreratuari Diploma” ematea erabaki zuen.



euskal eskola publikoaren jaia
**HAZITIK GORA!**
Bastida :: Arabako Errioxa

NOLA EROSI
CÓMO COMPRAR

**On-line**
**euskaleskolapublikoarenjaia.eus**




**Azal koloreko margoak**
**Pinturas tonos de piel**
4€



**Bokata eramateko zorroa**
**Porta bocadillos**
5€




**Poltsa zuria koloredun logoarekin**
**Bolsa blanca con logo en color**
8€




**Haurren kamiseta unisex zuria**
**Camiseta infantil unisex**
2-4-6-8-10-12urte
10€




**Helduen kamiseta unisex zuria**
**Camiseta blanca unisex personas adultas**

UNISEX. S-M-L-XL-XXL

10€




**Helduen kamiseta unisex beltza**
**Camiseta negra unisex personas adultas**

UNISEX. S-M-L-XL-XXL

10€




**Helduen sudadera unisex beltza**
**Sudadera negra unisex personas adultas**

UNISEX. S-M-L-XL-XXL

25€

29.edizioa

2020
**ekainak 7**



**euskal eskola publikoaren jaia**

# HAZITIK GORA!

**Bastida :: Arabako Errioxa**

Antolatzailea

ehige

Babesleak

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de Labastida

Bastidako Udala

Vital

eitb